

Ikaslearen liburu inprimatua

Unitate didaktikoak jasotzen dituen ikasmateriala

Jarduera-fitxak

Unitate didaktikoetako jarduerak eskatzen dituzten adierazpenak eta ariketak egiteko euskarria: grafikoak, datu-biltzeak, txantiloak, taulak, mapa kontzeptualak, inkestak, etab.

Portafolioa

Ikasleak unitate didaktiko bakoitzean egingo dituen fitxak eta lanak jasotzeko tresna

EKIGUNEA

EKI proiektuaren webgunea, euskarri digitalak biltzen dituen txokoa:

- Audioak
- Bideoak
- Animazioak
- Irudiak
- Jarduera osagarriak
- Konpetentzia digitala lantzeko fitxak
- Informazio-testuak

Irakaslearen gidaliburua

Diseinu kurrikularren ezaugarriak eta curriculumaren garapeneko hiru zehaztapen-mailak jasotzen dituen liburua

eki ikasgela analogikoa



eki ikasgela digitala



Ikaslearen liburu digitala

Unitate didaktikoak jasotzen dituen ikasmateriala (zoom eta web bertsioak):

- Audioak
- Bideoak
- Animazioak
- Irudiak
- Informazio-testuak
- Jarduera osagarriak
- Konpetentzia digitala lantzeko fitxak
- Jarduera-fitxak
- Irakaslearen gidaliburua

DBH

GI Zarte zientziak

euskal Curriculumak
konpetentzietan oinarrituta
integrazioaren pedagogiaz

Gizarte Zientziak arloko
material berrien ezaugarri nagusiak

Euskal Herriko ikastetxe gehienek
elkarrekin eraikitako eta onetsitako Euskal
Curriculumean oinarritua



PROIEKTUA

www.ikaselkar.com/eki

ikaselkar

GIZarte zientziak arloa

Oinarrizko kompetentzia: Gizarte - Gizabide-kompetentzia

Ikaslea gai da, bizitzako hainbat egoeratan, bere burua, kide den taldea eta bizi deneko mundua ulertzeko, gizarte-zientzietako ezagutzen menderatze eta interpretazio kritikoak eginez eta arloaren berezko metodologiak eta prozedurak erabiliz; horrekin guztiarekin, munduko hiritar euskaldun arduratsu moduan gizarte demokratiko eta anitz baten alde aritzeko.

Arloaren ikuspegia

Arloaren oinarrizko kompetentzian nabari denez, Gizarte Zientzien ikuspegi kritikoak hautatu da, berez halaxe behar delako eta, bestalde, azken hamarkadetak mundu garaikidearen erronkei aurre egiteko ezinbestekoa delako. Ez da, beraz, aski ikasleak gertaerak espazioan eta denboran nola eta zergatik gertatu diren jakitea. Ikuspegi kritikoak gertaeren intzionalitatea aurkitu nahi du eta etorkizunerako alternatiba posibleak planteatu, gatazkak onartu eta argudiatzea bultzatu.

Ikuspegi kritikoak, errealitate sozialen ezagutza eskatzen die ikasleei, baina ezagutza modu zabalenean ulertuta, pentsamendu gogoetatsu eta giza ekintzarako gaitasuna duena, informazioa eskuratu eta parte-hartze arduratsua bideratzeko.

Egungo eta iraganeko errealitateekin elkarreaginean egindako analisiak, ikasleari iturrien interpretazio kritikorako gaitasunaren garapena bideratzea eskatzen dio, gertaera sozial berari buruzko ikuspegi kontraesankorrak konparatzea, bere pertzepzio eta baloreekin alderatzea, eta gizarteko errealitateen interpretazio propioak berreraikitzea.

Eguneroko gertaeraz analisi iraunkorrak (komunikabideenak adibidez) ikusgai uzten du errealitatea interpretatu daitekeela, egia bakarra ez dagoela, eta iritzi nahiz argudio ugari izan daitezkeela ikuspegi kontrajarriak defendatzeko. Pentsamendu kritikoaren ildotik, argi eduki behar da Gizarte Zientzien ezagutzak ez direla behin-betikoak, aldakorrek baizik, eta ezagutzen edo aztertzen diren iturrien arabera errealitateen hainbat interpretazio egin daitezkeela. Oso garrantzitsutzat jotzen da, arloaren erlatibotasun hori ikasleak bereganatzea, interpretazio propioak egin ditzan eta bere eguneroko bizitzan aplikatu ditzan.

Ildo beretik, mundu globalizatu honetan analisi eta arrazoitze-gaitasunak dituen herritarra hezi behar bada, Gizarte Zientziek ikasleari lagundu behar diote hura inguratzen duen munduaz pentsatzen, eta pentsamendu kritiko soziala garatzen lagunduko dion arakatzeko-, hausnartzeko- eta kritika-gaitasunak lantzen.

Justizia, elkartzasuna eta ekitatea aintzat hartuta, bizitza sozialean, laboralean eta politikoan parte hartzeko, ondarea babesteko erabakiak hartzeko eta bizikidetzat demokratikoaren hobekuntza esku hartzeko, hiritar kontzientzia sakona izatea ere ezinbestekoa izango zaio ikasleari etorkizuneari.

Aipatzen ari den arloko ikuspegi horrek tresnak emango dizkio ikasleari, informazioa zuzena den edo ez den identifikatzeko, ikuspuntuak balioesteko, informazioaren pertinentzia balioesteko, oinarritutako, eta ongi justifikatutako argudioak bereizteko. Honen ondorioz, ikasleak, jasotzen duen informazioaren aurrean, pasibotasuna eta sineskortasuna gutxiagotzea espero da, eta, eskolan ikasitako bere bizitzako beste eremuetan baliagarria izan dakiokela.

Arloaren kompetentziak

Arloko oinarrizko kompetentziaren zehaztapena dira. Arloaren ikuspegia kontuan hartuta, oinarrizko kompetentzia metadiziplinarrak eta arloko eduki multzoak integratzen dituzte.

1. Ikasleak ingurunearen eta izaera ekonomikoa, soziala, politikoa zein zuzenbidekoa duten giza jardueren elkarreaginean interpretatzen eta baloratzen ditu, hainbat iturritako informazioa aztertuz, elkarreagin horien kausa-ondorio erlazioen esanahiak elkarren artean erakiz, eguneroko bizitza-eremuetan norberaren eta taldearen jarduna hobetze aldera proposamenak egiteko.
2. Ikasleak, bakarka zein elkarlanean, iraganeko eta egungo errealitate sozialei buruz egoki justifikatutako analisi kritiko eta arrazoituak egiten ditu, autonomiaz eta zuzentazunez, iturri anitzetako informazioaren trataera kritikoan oinarritutako indagazioak burutuz eta ondorioak argi eta zuzen adieraziz, bizitza tokatu zaion mundua ulertzeko eta egungo gizartearen arazoak eta lorpenen zergatiak buruzko interpretazio pertsonalak egiteko.
3. Ikasleak partaide den komunitateak dituen beharrei, arazo eta gatazkei buruzko arrazoi sendoz justifikatutako erabakiak hartzen ditu, modu aktiboan eta arduratsuan adostasunera iristera bideratutako elkarriketetan parte hartuz, besteen ikuspuntuak aintzat hartuz eta baloratuz, komunitateko kide sentitzeko, eta munduko herritar euskaldun arduratsu gisa bizitzeko / aritzeko.
4. Ikasleak jarrera kritikoak garatzen du partaide den talde eta erakundeekiko, haien antolamendu-egiturak, bilakaera historikoa eta funtzionamendua aztertuz, bertan dauden jarrera eta egoera diskriminatzailerak eta bidegabekoak salatuz, gaur egungo hainbat egoeraren zergatiak ulertzeko, bere euskal identitate sozialaren sustraiez jabetzeko, eta bera kide den taldeetan era kontziente, arduratsu, kritiko eta sortzailez parte hartzeko.

Eduki-multzoekiko erlazioa

- Egungo gizartea
- Ingurune naturala

- Bilakaera historikoa
- Egungo gizartea

- Bilakaera historikoa
- Egungo gizartea
- Bizikidetzat

- Bilakaera historikoa
- Egungo gizartea
- Bizikidetzat

Metodologiaren oinarriak

Hautatu den ikuspegi kritikoak kontuan izanez eta ikaslearen irteera-profilean finkatutako xede, ezaugarri eta kompetentziak lortzeko, Gizarte Zientziak arloaren metodologia ikaskuntza-estrategia globalizatuak eskuratzera bideratuko da, arloaren diziplinetako iturrien lanketatik eta horien interpretazio kritikotik abiatuz. Horrela, ikaslea, talde lanean kolaboratuz, bizitzako hainbat eremutan sortutako galderei edo erronkei eraginkortasunez erantzuteko gai izan dadin prestatu nahi da.

Honako hauek dira Gizarte Zientzietarako egindako hautu metodologikoen indar-lerroak:

- Problema edo arazoetan oinarritutako ikaskuntza izango da oinarria; hots, ikasleari jarriko zaio gizarte arloko problema bati aurre egitea eskatzen duen egoera bat.
- Hipotesi edo / eta galderak izango dira abiapuntu, irakasleak bideratuak etaparen hasieran; ikasleak berak sortutakoak etapa amaieran.
- Galderei erantzuteko eta hipotesiak egiaztatzeko, informazioa bilatu eta hautatu beharko du ikasleak. Prozesu hori hainbat modutara bideratuko da: indagazio edo ikerketa txikiak eginez (bai zuzeneko behaketak eskatzen dituztenak, bai iturriak kontsultatuz...); simulazioetan oinarritutako ikaskuntzak aurrera eramanez (kokapen jarduerak, enpatian oinarritutakoak, dramatizazioak, debata, rol jokoak...).
- Hipotesiak egiaztatzeko prozesuan, batzuetan, bildutako informaziotik edo datuen azterketatik abiatutako arrazonomendua inductiboa erabiliko du ikasleak gizarte gertaeren eta egoeren interpretazioa osatzeko; beste batzuetan, arrazonomendua hipotetiko deductiboa baliatuko du ikasleak erlazioak topatzeko: kausa askotarikoak, kausa-ondorioak, konparazioak, ikuspegi ezberdinak... Horren bidez interpretazio berriak egiteko lehen azalpen hurbilpenak osatuko ditu.
- Arazoei edo problemek irtenbide posibleak emateko, alternatibak eraikitzeko, ezaguera berriak eraikitzeko... elkarreagine-rako aukera ematen duten debata eta elkarriketak baliatuko dira, horietan ikasleak argudioak eta kontra-argudioak eman ditzan bultzatuko da.

Aipatutakoren ildotik, Gizarte Zientzietan iturrietan oinarritutako lan-prozesuak bideratzeak garrantzi berezia hartzen du eta horrek eskatzen du, alde batetik, ezagutza eskuratzeko (prozesuko zehaztasunak bereganatzeko eta eguneroko bizitzan jasotzen duen informazioaren aurrean behar duen kritikotasuna garatzeko) eta, bestetik, lan-prozesu horren berezko prozedurak eta urratsak menderatzea: informazioa era autonomoan bilatzea, modu kritikoan aztertzea, hainbat eratako irizpideen arabera analizatzea, sailkatzea, antolatzea, konparatzea, ebaluatzea eta berariazko adierazpen moduen bidez komunikatzea.